

Sutearo, bazkideentzako babes erakundea



Elkar laguntzeko erakunde asanblearioa dugu Sutearo. Landa eremuko eraikinak babesteko sortu zen eta gaur egun, 4200 bazkide inguru ditu eta 5000 etxe baino gehiago babesten dituzte.

Sortu zen unetik irabazi asmorik gabeko erakundea da Sutearo, bere oinarrian elkartasuna, autogestioa eta bazkideen partaidetza izanik. Ohiko aseguru etxeetatik aldentuz bazkideak ditu ardatz erakundeak, beraiek izanik bai laguntzak eta erakundearen funtzioa arauak

erabakitzen dituztenak.

ASEGURU ETXEEKIN ANTZEKOTASUNA

Besteak beste etxebizitzetan edo baloreetan izandako kalteei erantzuten diote, kontratuan jasotako baliozkoen ondorioz izan badira: suteak, leherketak, tximista, euria, haizea, lapurretak... Bazkideen erantzunkizun zibiletik ondoriozta daitezkeen kalteak ere kudeatzen dituzte.

BEREIZGARRIAK

Ezberdintasunen artean elkarri laguntzeko erakunde

bat izanik bazkideek osatzen dute Sutearo. Honela bazkideak beraien hartzen dituzte erabakiak asanbladen bitartez. Eskeiniko diren babesak edo funtzionamendu arauak bazkideek beraiek adosten dituzte. Bestalde, aseguru etxeek etekinak dituzte helburu, Sutearon ordea ez dago etekinik. Bazkideen ekarpenak izaten dira ezbeharren gastuei eta horien kudeaketa gastuei aurre egiteko erabiltzen direnak, soberakina egonez gero, bazkide bakoitzaren «poltsan» geratuz.

Azpimarratu beharra dago Sutearoren lan esparrua baserri edo landa eremuetan kokatuta dauden etxebizitzak babestera zuzendua dagoela. Alde bateatik esparru jakin horietan sortu zirelako beraien baitako lehen ermandadeak, eta bestetik, betiko aseguru etxeek eskaintzen zituzten irtenbideak ez zirelako nekazal eremuko eraikinei egokitzen, hau da, ez zirelako nekazal eremuko eraikinek izan ahal zituztenkalteen errealitate-rari egokitzen.

